

AGINTARIAK ETA LANGILEAK

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

GOBERNANTZA, ADMINISTRAZIO DIGITAL ETA AUTOGOBERNUAREN SAILA

2859

AGINDUA, 2026ko ekainaren 19koa, Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuko sailburuarena, zeinaren bidez esleitzen baitira 2026ko urtarrilaren 30eko Aginduaren bidez deitutako lanpostuak. Agindu horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko Lan Kontratudunen Kolektiboentzako Hitzarmenean lan-kontratadunentzat gordetako lanpostuak betetzeko lehiaketarako deialdia egiten da.

Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuko sailburuaren 2026ko urtarrilaren 30eko Aginduaren bidez (2026ko otsailaren 9ko EHAA), Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko Lan Kontratudunen Kolektiboentzako Hitzarmenean lan-kontratadunentzat gordetako lanpostuak betetzeko lehiaketarako deialdia egin zen.

Enplegu Publikoko zuzendariaren 2026ko ekainaren 17ko Ebazpenaren bidez, erabaki zen Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuko sailburuari helaraztea Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko lan-kontratadunen kolektiboentzako hitzarmenean lan-kontratadunentzat gordetako lanpostuak betetzeko lehiaketako lanpostuak esleitzeko behin betiko proposamena. Lehiaketa horretarako deialdia 2026ko urtarrilaren 30eko Aginduaren bidez egin zen.

Horregatik guztiagatik, Euskal Enplegu Publikoaren abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 18.2.t) artikuluan eta Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urriaren 29ko 317/2024 Dekretuaren 3. artikuluan emandako eskumenari jarraikiz, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.— Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuko sailburuaren 2026ko urtarrilaren 30eko Aginduaren bidez deitutako lanpostuen esleipena onartzea. Agindu horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko Lan Kontratudunen Kolektiboentzako Hitzarmenean lan-kontratadunentzat gordetako lanpostuak betetzeko lehiaketarako deialdia egin zen. Esleipena Agindu honen I. eranskina da.

Bigarrena.— Esleipendunak 2026ko uztailaren 1ean hasi beharko dira lanean, ezinbesteko kasuetan izan ezik.

Hirugarrena.— Borondatez parte hartu dutelako edo nahitaezko esleipena delako lanpostu bat esleitu zaien pertsonak 2026ko uztailaren 1ean jabetu beharko dute lanpostuaz, oro har. Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo dauden lanpostuen kasuan, 2026ko abuztuaren 1a izango da lanpostuaz jabetzeko data.

Ezarritako datan lanpostuaz jabetzen ez denak ulertuko da interes partikularragatik borondatezko eszedentzia eskatzen duela karrerako funtzionario gisa, eta egoera horretan deklaratu du Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernu Saileko Enplegu Publikoaren Zuzendaritzak, ezinbesteko kasuetan izan ezik.

Esleipendunek aurreko lanpostuaren titulartasuna galduko dute, hala badagokio. Era berean, gozatzen ari ziren aldi baterako mugikortasunak amaitutzat joko dira.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Agindu honen aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuko sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean xedatutakoaren arabera, edo, bestela, demanda aurkeztu ahal izango da Gasteizko Lan Arloko Epaitegietan, Lan Arloko Jurisdikzioa arautzen duen urriaren 10eko 36/2011 Legearen 6.2 artikuluan xedatutakoaren arabera.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko ekainaren 19a.

Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuko sailburua,
MARÍA UBARRECHENA CID.

2026ko ekainaren 26a, ostirala

2026ko urtarrilaren 30eko DEIALDIAREN AGINDUA / ORDEN de CONVOCATORIA del 30 de enero de 2026

I. ERANSKINA. ESLEITUTAKO LANPOSTUEN ZERREND
ANEXO I. LISTADO DE PUESTOS DE TRABAJO ADJUDICADOS

Eskatzailearen Izena Nombre del Solicitante	Kidegoa Cuerpo	Lanpostuaren Izena Denominación Puesto	Dot. Dot.	Saila/Erakundea Departamento/Org.	Adm.Egituraren atala Centro Orgánico	Lan-egoitza Destino	Puntuaz Esleip. Puntuac Mot.Adjud.
CABRERO PEREZ, MARIA		3437	2	JUSTIZIA ETA GIZA ES JUSTICIA Y DERECHOS	ADMINISTRAZ DIR.DE LA ADMINISTRA	BILBAO	77 PU
DIAZ DE OTAZU VITERI, MIKEL		3738	1	ENERGIA, SISTEMA ETA RESPON.ÁREA ENERGÍA,	GOBERNANTZA, ADMON. GOBERNANZA, ADMON. D	BALIADE OROKORREN DIRECCIÓN DE RECURSO	41,290 PU

ESLEIPEN EDO ANTOLAMENDU ZIOAK / MOTIVOS DE ADJUDICACIÓN U ORDENACIÓN

PU Puntuazioa (guztira)
Puntuación Total